



BIOBEAUTY  
GUNEA BIOTERRA

---

Kosmetika ekologikoa

---

Textu ekoizpena

nasei  
*organic beauty*

Kolaboratzailea

BIOTERRA   
v  
[bioterra.ficoba.org](http://bioterra.ficoba.org)

# Ezagutu ezazu kosmetika ekologikoa

Kosmetika ekologikoa, organikoa edo biologikoa ere esaten zaiona, laborantza ekologikoetatik datozen osagai begetalekin egiten dena da. Laborantza horietan, ez dute erabiltzen ez pestizidarik, ez ongarririk, ez sintesizko substantzia kimikorik; natur baliabideak bakarrik erabiltzen dituzte beren laborantzetan.

Ingurumena gehien errespetatzen duen kosmetika da, eta produktu osasungarriak eta toxikorik gabeak lortzeko aukera ematen du. Kosmetika horretan, ez duzu sekula aurkituko eratorri petrokimikorik, perfume sintetikorik edo osagai transgenikorik. Hain zuzen ere, substantzia horiek erreakzio alergikoak sortu litzakete, eta, kasu batzuetan, osasuna kaltetu; izan ere, osagai horiek azalak xurgatzen ditu, eta odol-uharrera iristen dira; eta hortik, gure organismo osora.

Beste arrazoi askoren artean, horrexegatik animatzen zaitugu Bioterran eta Biobeauty Gunean kosmetika ekologikoa erabiltzera.

## Kosmetiko ekologikoa izateko bete behar dituzten betekizunak

- > Osagaien % 90a, gutxienez, jatorri naturalekoak dira.
- > Animalietatik ateratako osagaiak onartzen dira, betiere animalia anputatuetatik edo kosmetikoa egiteko berariaz hildako animalietatik lortzen ez badira (lanolina, azido laktikoa, erleen argizaria...).
- > Ez amaierako produktua ez haren osagaiak ez daude testatuta animalietan.
- > Ez dira onartzen teknologia eztabaidagarriak, edo genetikoki aldatutako organismoak edo irradiazioa erabiltzen dituzten osagaiak edo prozesuak.
- > Ziurtagiri naturalaz gainera kosmetiko ekologikoaren etiketa bat nahi baldin bada.
- > Enpresa ziurtatzailearen arabera, osagaien % 15 gutxienezko bat nekazaritza ekologikotik etorri behar du, kosmetika ekologikoa izateko.
- > Portzentajea txikiagoa bada, naturaltzat hartuko da kosmetikoa.

## Zure eguneroko zaintzetan kosmetikoa ekologikoa erabiltzearen onurak

- > Ez dute planeta kutsatzen
- > Ingurumena babesten dute
- > Osasungarriak eta seguruak dira gure organismorako
- > Oso eraginkorrak dira
- > Gure azala babestu eta zaintzen dute
- > Mantenuaiez eta bitaminez beteta daude

## Eta zer osagai aurkitu ditzaket?

- > Olio eta gurin begetalak: almendra-olioa, hurrena, aguakatearena, jojobarena, arrosa mosketarena, ekilorearena, kokoarena, karite-gurina, kakao-gurina...
- > Esentzia-olioak: erromeroa, izpilikua, laranja, ezkaia, zedroa, sandaloa...
- > Hidrolatoak: Arrosa-ura, laranja-lore, hamammelisa...
- > Landare eta lore-estraktuak: aloe bera, malba, indigaztainondo...
- > Fruta-hezurak eta pipitak: albortxiko-hautsa, olivak, mahatsak...
- > Zerealak: oloa, arrosa...
- > Buztinak: berdea, zuria, gorria...

## Enpresa eta ziurtatzaile nagusiak

Kalitate-estandarrak betetzen dituzte, eta ziurtasuna ematen dizute kosmetikoak produktu ekologiko eta naturalekin egin direla eta egiteko prozesuan kontrol zorrotzak pasa dituztela: SOIL ASSOCIATION / BDIH / ECOCERT / COSMEBIO / NATRUE / BIOVIDA SANA / BIO INSPECTA / USDA / ICEA

## Zure kosmetikak zer darama?

Hona hemen lagungarri suertatuko zaizkizun zenbait web:

- > [www.safecosmetics.org](http://www.safecosmetics.org)
- > [www.laveritesurlescosmetiques.com](http://www.laveritesurlescosmetiques.com)
- > [www.biodizionario.it](http://www.biodizionario.it)



# Osagaiak

INCI ingeleseko *International Nomenclature Cosmetic Ingredients* siglak dira (osagai kosmetikoen nazioarteko nomenklatura). Nazioartean forma hori onartzen da kosmetiko baten osagai guztiak latinez eta ingelesez izendatzeko. Horrela, zehatz-mehatz jakin dezakegu haien osiera, fabrikatu duten herrialdea edozein delarik ere.

Zerrendako osagaien hurrenkera formularen garrantziaren arabera egiten da, kopuru handienetik txikienera.

# Osagai toxikoak

Zerrenda amaigabea da, toxiko ugari aurki ditzakezu kosmetika konbentzionalean, horregatik guztietatik ezagunenak direnekin egin dugu zerrenda. Zure kosmetikan, osagai horietakoren bat, bakarra izanda ere, aurkitzen baduzu INCI... baztertu ezazu! Ez da kosmetiko osasungarria eta are gutxiago ekologikoa!

## Xanpu eta ilerako produktuak



- > Sodium laureth sulfate
- > Sodium lauryl sulfate
- > Polietilenglikola (PEG)
- > Propilenglikola (PPG)
- > Pfeneldiamina
- > Triklosana
- > Dietanolamina (DEA, MEA edo TEA)
- > Parabeneak (Methylparaben, E-Ethylparaben, Propylparaben, Butylparaben)
- > Glicol Cetearate
- > Silikonak (Dimethicone, Cyclomethicone)
- > PVP/PVA

## Xaboa eta dutxako gela



- > Sodium laureth sulfate
- > Sodium lauryl sulfate
- > Glicol Cetearate
- > Parabeneak (Methylparaben, E-Ethylparaben, Propylparaben, Butylparaben)
- > Dietanolamina (DEA, MEA edo TEA)
- > Polietilenglicol (PEG)
- > Propilenglicol (PPG)

## Serum, aurpegi eta gorputzerako krema



- > Parafina (Paraffinum liquidum, Petrolatum, propilen glicol, mineral oil, vaseline)
- > Parabeneak
- > Polietilenglikola (PEG)
- > Propilenglikola (PPG)
- > Retinol Palmitatoa

## Makilajea



- > Butilhidroxianisola (BHA)
- > Butilhidroxitoluenoa (BHT)
- > Silikonak (Dimethicone, Cyclomethicone)
- > Koloranteak (CI) horietako askok metal pisutsuak dituzte

## Azazkaletako esmaltea



- > Formaldehidoa
- > Toluenoa
- > Ftalatoak (Diethyl Phtalate, Dimethyl Phthalate)
- > DBP

## Desodorantea



- > Aluminioa
- > Triklosana
- > Ftalatoak
- > Lurringaiak

## Perfume eta kolonia



- > Dibutilo Ftalatoa
- > Acetil hexametila
- > Bromocinnamala
- > Tonalide

## Hortzetako pasta



- > Triclosan
- > Fluoruro (sodium flouride, sodium Monoflourphosphate)

## Eguzkitik babestekoa



- > Oxibenzona
- > Avobenzona (Butyl Methoxydibenzoylmethane)
- > Ethylhexyl triazone
- > Octildimetil PABA
- > Octinoxate (Octyl Methoxycinnamate, OMC, Ethylhexyl Methoxycinnamate, EHMC)
- > Cinoxato (2-Ethoxyethyl-P-Methoxycinnamate)
- > Retinol Palmitatoa
- > Butilhidroxianisola (BHA)
- > Butilhidroxitoluenoa (BHT)
- > Polietilenglikola (PEG)
- > Propilenglikola (PPG)